

6.– CERVANTES

Gaur ziurtzat dago Alkala de Henares'en jaio zala 1547n. urtean iraillaren 29n. egunean.

Bere sendia erdi-maillakoa zan eta Madrid'en eta Sevilla'n igaro eban ume ta gazte-aroa.

Gazte zala Italia'ra joan zan diru-billa. Ez da egia duelo batetik iges egiteko joan zala.

An Acquaviva kardinalaren otsein izan zan eta gero tertzioetara sartu zan gudari. Maitale bat aurkitu eban eta onegaz izan eban Promontorio bere seme bakarra.

1571n. urtean Lepanto'n gudakatu eban. A izan zan "gizaldiak ikusi daben sasoirik aundiena", berak esaten eban lez..Sukarra eukala joan zan eta ezkerreko besoa geldituta geratu jakon eta 1575n. urtean España'ra urten eban Juan de Austria'ren gomendiozko gutunagaz,baiña bidean korsario musulmanak arrapatu eben Rodrigo bere anaiagaz batera eta Argel'era eroan ebezan atxillo.

Korsarioak irakurri ebezan erioazan gomendiozko kartak eta Cervantes gizon aunditzat artu eben, karu saldu bear zan gizon lez.

Bost urte egin ebazan an. Sarritan iges egin nai izan eban, baiña alperrik.

Galeretan Konstantinopla'ra bialtzeko egozanean, Lekaide Trinitarioak ordaindu eben beragaitik eta aske geratu zan, baiña arabeen gorrotoa betirako geratu jakon barruan.

Bere errian egoera larrian aurkitu zan : etxean zorrak ugari. Antzeslari izatea otu jakon, baiña erriak Lope de Vega eban gogoko eta onen idazkerea beste bat zan.

Indietara joatea be eskatu eban, baiña ez eban lortu. Eskerrak orreri, bestela ez zan idatziko D.Quijote.

Urrengo urteetan Armada Invencible'ko komisario egin eben, baiña eleiz-ondasunak artu ebazala-ta, ekskomunikatu egin eben. Gero espetxeratu be bai.

1605n. urtean argitaratu eban D.Quijote (lenengo zatia) eta onartua izan zan. Or amaitu ziran bere diru-bearrak.

Azkenengo urteak be gaitxak izan jakozan. Alabea giza-iraulketa baten nastatu jakon, emagaldtu biurtu be bai, arrebea il jakon eta Promontorio bere semea ondoan ez eukitea mingarri jakon. Ori agertzen da bere "novelas ejemplares" liburuetan eta D.Quijote'ren bigarren zatian.

1616n. urtean il zan, jorraillaren 23n. egunean Shakespeare il zan egun beratan.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZERUKO ATEAK ZABAL

Itxas urdiñak baiño
zabalagoak dira
zeruko atea,
ertz esturik bage
ernai daukaz zeruak
bere goi egalak.

Zerua deika dago
kistar seme zintzoei
lurralde guztira,
gizadiak, gora, nai
zoriontasun eran
bizi izatera.

Zorionik onena
Aitarenean dago
bizitza guztian,
ogirik gozoena
bere maitasuna
zerutar zorian.

ZERUA ITXARON

Iru bide daukaguz
zeruetara adi
laguntza opaka,
siñismenaren deiak
zeruratu nai gaitu
biotz taupadaka,

Itxaropen goitarra
zerutik deika dago
ontasun bidean,
gauzarik aundiena
zoriona eskeintzen
daukagu lurrean.

Onoimen guztietan
bitxirik ederrena
maitasuna da,
maitasun zintzoa
izango dau lagun on
lurrera begira.

PAULIN